

Labayru Hiztegia

Bizkaiera eta Batua

euskara – gaztelania

Labayru Ikastegia
Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioa

Bilbao
2011

AURKEZPENA

Hiztegi hau, Labayru Ikastegiak euskararen alde 1970ean Derioko Udako Ikastaro bezala lehen oinatzak ematen hasi zenetik eta gaurdainoko ibilbidean, iritsi duen helmugarik gorengoa da.

Hiztun helduen euskara-irakaskuntza, ikasliburuen sorkuntza, literatura lehengoaren eta berriaren eraikuntza eta argitaratzea, hizkuntza eta literaturaren ikerkuntza, itzulpengintza, euskara administrazio eta lan-mundura hedatzeko ekimenak... eta beste esparru gehiago urratu izan du Ikastegiak bere izate luzean. Hiztegi-gintzarena, aldiz, jorratzeke zeukan oraingoraino; edo ez behintzat, oraingo moduan, plaza agerira euskal hitzen erakuspen sistematikoa ekarrita. Berori da, hartara, Labayru Ikastegiak hiztegi-langintzan ipini duen lehenengo harri landua.

Mendebaldeko euskara, bizkaiera ohi deritzana, zutabe harturik egiten den ahalegina da, bizkaierarekin euskara batuaren barruko lokarriak sendoagotzeko asmo zindoaz. Holako saiaketarik ez da egin orain artean; ez behintzat, bizkai euskarari, eredu literario gisa, ezaguera aitorturik.

Igaroko mendearen hirurogeita hamarreko hamarkadan euskara batuaren eredu finkatu eta bideginen hasi zenean, mendebaldeko hiztunek lehen baino umezurtzago ikusi zuten euren burua: bizkai ereduari garatzeko gerizarik ez zitzaion gelditzen ia eta euskara berria, ostera, bertako euskaldunentzat urrunegi egiten zitzairen. Zubirik gutxi zen, horretara, mendebaldekoentzat euren berbetaren eta eredu batuaren artean. Eredu bitzuk, lexiko mailan, berriz ere uztartzera dator *Labayru Hiztegia*, aurrerago ikasliburuen, literaturaren eta irakaskuntzaren bitartez Ikastegiak egin izan duen bidetik.

Eta bide horretan, herri-euskara, ahozko hizkera bizia, da betirik eta ardura bereziaz jagon izan duen alderdirik garrantzitsuen. Helduentzako ikastaroetan, lehen pausoak euren mintzairatik egin izan dira. Herri-literatura, ahozko literaturaren bilketa, azterketa eta zabalkuntza bultzatu izan ditu. Testugintzan zein literatura-sorkuntzan, herri-hizkera eta hizkuntza jasoaren arteko loturak estutu ditu. *Labayru Hiztegia* jokabide zahar horren erakuspen berri eta ugaria da: herri-berbetako hitz, esaldi eta esaeraz josirik dago. Egungo euskaldunen lekukotasun bizi-bizia da.

Literatura tradizioaren, klasiko zahar eta modernoaren erakusgarri ona ere bada: idazle zahar eta berriago onenen hizkera-ekarrikerik ederrenak jasorik dakartza, egungo hiztunen beharretara egokiturik, baina.

Beraz, gaurko hiztunen premia eta eskarietara hobendua da, euskaldun zahar eta berriak gogoan direla ondua: euskaldun guztiei zuzendua berez, eta Bizkaiko eta mendebaldeko berriak.

Askoren ahaleginaren hobaria, talde-lanaren fruitua duzue *Hiztegia*, hasieratik eta egundaino. Filologo, irakasle, idazle, itzultzaile eta herri-jakintzazale eta hizkuntzaren lekuko zurrak jardun dute berau egiten.

Ibaizabal argitaletxeak diruz lagundu zigun aurreneko sasoiaren, batik bat. Bizkaiko Foru Aldundiko eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailen bidez babesturik egon da egitasmo hau beti; BBK Fundazioak argitaratzeko laguntasuna eman digu.

Askoren artean eta askorentzat eginiko lan handia, bada.

Gure eskerrak zuoi, lankidetzeta eta konpromiso estu horren emaitza baitugu *Labayru Hiztegia*.

Labayru Ikastegiak
Lexikografia ataleko lantaldea

SARRERA

0. Aurretikoak

Labayru Hiztegia honen eginbidea luzea izan da, hasiera baten pentsau zan hiztegi oinarrizko eskuor haren plana, ibilian-ibilian, hiztegi nagusia izatera heldu dalako. Orain hogeta bost bat urte ipini ziran hiztegi honen lehenengo eustarriak, gerora harri barriakaz trinkotu, sendotu eta barritu diranak.

Hasierako asmoa eskola-hiztegia ontzekoa zan, bizkai hiztunak ziranai eta batez be irakaskuntzako ikasle-irakasleai tresna arin eta eroso eskintzea, euskera bizkai eta batu ereduatan lantzeko, eta aldi berean, irakaskuntzarako sortu eitezan liburuak be lexiko-erreferentzia garbia euki egien.

Helburu horri buruz, artean, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren babespean argitara emonak ziran *Bizkaieraren idatzizko arauak: deklinabidea eta aditza* (1983) eta *Bizkaierazko joskera* (1984), obra bitzuk Bizkaiko irakasle-talde batek atonduak. Morfosintaxia lantzen eben oinarrizko langaion ondoren, hiztegia behar zan osogarriztat, bizkaiera idatzirako falta zan tresnea. Hutsune hori beteteko asmoz sortu zan hiztegi honen egitamua.

Bizkaiko Foru Aldundiaren eskutik hartu eban hasieran, honen Kultura Sailaren diru-laguntza bategaz, lehenengo bultzadea, eta harik aurrera Labayru Ikastegiak eroan dau beronen ardura nagusia, Ibaizabal argialetxearen partaidetza eta laguntza be aldizka izan dala.

1. Hiztegiaren ibilbideaz

Hiztegia, aurretiaz landuriko eta berenberegir beronetarako diseinaturiko datu-base programa bategaz abiau zan. Gerora aldian-aldian barritzen eta hobetzen joan da programa hori, baina oinarrian hasierako informazino-gune berberak zaindurik, eta horreetan sartu da geldika-geldika hiztegiaren gorputza osotuko eban informazino guztia.

Hiztegi elebidun lez sortu zan eta halan garatu da; zuzenbide bi eukiko zituan hiztegia: euskeratik gaztelaniara eta gaztelaniatik euskerara. Esku artean daukazun hau lehenengo da, euskeratik gaztelaniarakoa. Berau izan da lehenengo egiten hasi eta burutu zana; 2003an estreinakoz argia ikusi eban. Eta horretan oinarriturik hasi zan bigarrena, gaztelaniatik euskerarakoa, 2005ean argitaratua izan zana. Alkarren osogarri ditugu biok.

Hiztegia huts-hutsetik hasi zan, eta ez aurreko hiztegi jakin baten edo batzuen jarraipen edo osokuntza asmoz. Egia da, halanda be, hiztegia, berez, nekez izan daitekela originala eta bere gorputzaz beti zor deusela aurrekoai edukiaren arlo handi bat, hizkuntza bat eta bera dalako lehen eta orain. Halan bada, hiztegia hornidu daben iturriak askotarikoak izan badira be, aurreko hiztegi nagusienetako edukiak osotu dabe informazinoaren ardatza; berau egin bitartean argitara diran hiztegiatarik onenetarikoak be jaso da; literatura-tradizinoan idatzietatik eta gaur egungo edo oraintsuko testu-produkzinoetatik ateratako informazino be hainbat izan da. Eta azkenez, ahozko iturritik edo lekuko bizietatik jaso dana be ez da izan emoi gitxiagokoa.

Labayru Ikastegiak euskera eta euskal kulturaren sustapenerako darabilzan ekintza-arlo diferenteetatik bildutako informazinoak halako berezitasuna eskintzen deutso hiztegi honen izaerari:

etnografia-atlaserako egiten diran ikerketak, itzulpen jardueratik sortutako testuak, literaturgintza barriak edo testu zaharren filologia-azterketak emoten dabena, eta bardin langintza didaktikoak eta irakaskuntzak eskaintzen dabena.

Horren guztiorren emaitza da *Labayru Hiztegia*, beti be isuri eta hauturiko corpus guztia behar dan lez irazi eta taiutu ondoren.

Hiztegiaren lehenengo gorputz hau *euskera-gaztelania* atalari eskinia da. Lehenengo sarrerea euskerako hitzena emon, eta bakotxa berari jagokon beharrezko informazioaz hornidu, esanahiak gaztelaniaz zehazten dirala. Berba-sarrerak, horrezaz gainera, gainerako informazio gehiago dabe: gramatika-kategoriak beti zehazten dira; adibideak, aldaerak, sinonimoak eta gramatika-azalpenak, komenidu danean edo behar diranean.

Hiztegiaren bigarren gorputza gaztelania-euskera atalak osotu badau be, lehenengo hau da hiztegiari zimenduak ezarri deutzazana. Euskerearen ikuspegiz eta euskal hitz-ondarea oinarritzat harturik ipini dira zimenduok, eta euskal hitzok hizkuntzan daben erabilera aintzat harturik bete da sarrera-berba bakotxaren edukia.

Bigarren atala, *gaztelania-euskera*, egiterakoan, *euskera-gaztelaniakoan* egozan hutsune edo makalunetxoak salatu ditu, eta hutsuneok beteten saiatu gara osteko orraztaldietan. Holan bada, prozesuan zehar hiztegi-atal bitzuen arteko alkar-eragin edo alkar-osotze aberasgarria gertatu da.

2. Ezaugarri nagusiak

Erabilera hizegi deskriptibo arauemoilea dala esanaz laburbildu daiteke honen izaera.

Gaur egungo hizegi ohikoen egitura beretsuz taiuturik dago eta hizegi batek ohi dauen oinarritako betebeharrari erantzuten dator. Erabilera eta bilabidea erraza izan dadin, hitzak alfabetoz ordenauta dagoz, eta hitzok banan-banan deskribidu dira, esanahien erispidea nagusi dala. Hizkuntza moderno guztietan moduan, hizegian sarrerea emoten jaken berbak araukotzat onartzen dira.

Astiroago eta behin banan garatuko dira ondoren hizegi honen ezaugarriak.

2.1. Elebidun izatea

Euskera-gaztelania hizegi honek hizkuntza biok buztartzen ditu eta zuzenbide honetan, euskeratik gaztelaniara.

Hiztegiaren lehenengo gorputza da berez *euskera-gaztelaniakoa*, eta, gorago esan danez, hizegiaren jatorrizko izaerari eta euskal hizegunen beharrianai barrutik erantzuten deutzazana. Atal honetan ugariro landu dan alderdi bat, eta bigarreanean ez horrenbestean, adibide-kontestuen gunea da. Hiztegia euskal hizkuntzaren ikuspegitik egin dan seinale da hori.

Esanahiak gaztelaniaz emon dira, gehienbat garrantziaren arabera ordenan. Gaztelaniako berba bakun bat bilatu ez danean ordezkotzat, perifrasi bidez egin da azalpena.

2.2. Hizegi zabala eta ugaria

Hizegi-gorputz honek 62.200 sarrera inguru ditu, baina azpisarrerak kontuan hartu ezker, 75.000 gitxi gorabeherako kopurura heltzen da. Izan be, sarrera eta azpisareren banaketa honen bidez taiu moderno eta didaktikoagoa emon nahi izan jako hizegiari. Holan dala, bada, euskerazko sarrera askoren barruan azpisarrera bat edo batzuk dagoz. Azpisareron bidez jaso dira hitz baten inguruan eregitako hitz konposadu edo erdi-konposaduak, eratorpen lexikalizatuak edota lokuzino eta esamoldeak.

Edukiz zabala eta ugaria dala esatean aditzen emon gura da, tamainu ertain edo handiko hizegi batek hartu leiken informazio guztia dakarrela jasorik, bai hitzen kopuruaren aldetik, bai bakotxari eskinitako edukiaren aldetik. Aldaeratzat jotzen diran hitzak bazterrean itxi ezker, hizegi honek

euskal lexiko-ondarea osotzen daben berbak zehatz eta zehero jasorik dakar, eta sarrera-berba bakotxaren azpian be eduki ugaria. Beste modutara esanda, hitz bakotxaren inguruko informazio esanguratsua baturik dator hiztegian.

2.3. Tradizino idatziaren gordailu

Euskal lexiko-ondarea, tradizino idatziz jatorkuna, guzti-guztia ez bada be, ahalik eta osoen batzeko ahalegina egin da. Horretarako, corpusaren biltegi diran hiztegi, lexikoi eta berba-zerrendak hutsitu dira, batetik. Baina era berean ardua handia hartu jake gure tradizinoan idazlerik itzaltsuenen obrari: euskal literaturaren erreferentzia-lanak begipean izan dira, ez bakarrik eurotako hitzak edo hitzen itxurak batzeko, ezpada batez be hitzon esanahiak edo esanahi-berezitasunak lekukotzeko edota hitzon erabilguneak baliatzeko.

Literatura klasikoaren iturrira, hiztunen erabileratik aldendu diran edo aldentzeko zorian diran hitzetan edota hiztun kopuru laburretara bazterturik dagozanetan jo da batez be.

Autoreen zitak, dana dala, gitxitan baino ez dira jaso diran-diranean (RS, A. Oihenart, J. A. Mogel eta hatariko batzuk); gehien-gehienetan, gaurko grafiara ekarri doguz irakurleen mesedegarri. Eta sarriago egin dana da, zitak gaurko irakurlearentzat edo gaurko erabiltzaileen beharrianetara egokitu, horretara berba eta berba-kate horreek gaurko hiztun eta idazleetan bizibarrizteko erea izan dagien.

2.4. Ahozkotasunaren lekuko

Hiztegi hau ahozko eta idatzizko euskerearen alkarbide dala esan izan dogu gorago. Hagaitik, eta idatzizkoaren ekarria zertzeladatu badau be, artez argitu beharrekoa da, hiztegiaren ekarriari baliotsuena eta, esan ahal balegi, originalena, ahozkotasun aldetikoa dala.

Idatzizko tradizinoan dan bestean edo ginoan, ondareztat hartu da ahozko euskerea. Hiztegi honen babesle eta eragile izan dan Labayru Ikastegiak bere ibilbide luzean, irakaskuntzan dala, idazkuntzan dala, literaturgintzan nahi ikerkuntzan, aparteko balioa autortu deutso herri-berbeteari eta herri-jakintzari, eta hiztegi-gintzan be leku oparoa eskini gura izan deutso alderdi horri.

Euskerearen kasuan, eta hainbat gehiago mendealdeko euskerearenean, errazoi sendoak dagoz horretarako. Hizkuntza idatziak ahoz egiten dan berbetearen zati bat baino ez dau erakusten gure kasuan, eta gai batzuetan sano da txikia, barrez, islatze hori. Euskera idatzia oraintsura arte ez da hedatu bizimodua eta giza hartu-emonan osotzen daben arlo askotara, eta bizkai euskereari jagokonez, arabere gitxiago.

Ahozkotasunaren ekarria honetan datza batez be: batetik, lekuko bizien ahotik jasoriko hitz, hitz-itxura berezi eta esanahi edo adiera ugari ekarri dira hiztegiara. Ahozko iturritik hartutako datuok literatura idatzizko iturriaz eta aurretiko corpus-hiztegien ekarriaz erkatu dira, eta barritasunik egon bada, hiztegian txertatu da.

Kontestu-adibideak dirala esan leiteke, ahozkotasunaren espilurik garbiena. Hiztunentzat, eta berariaz mendealdekoentzat, ezagun eta eguneroko egiten diran esaldi asko sartu dira, hitzen erabilera-eremuak garbi erakusteko.

Ahozkotasunaren beste alderdi baliotsu bat herri-literaturarena da: errefrauak, esaerak, koplak, bertsoak eta antzekoak ugariak dira adibideetan. Ia beti (*Herrikoa*) hitzaz adierazo da iturri hori.

Euskalerriko Atlas Etnografikoa egiten diharduen Etniker taldeetako kideen inkestetan agertu diran hainbat berba eta kontestu be, erara etorri danean edota euren hutsunea egon danean, hiztegian sartu da.

Hiztegia egiten jardun dauen taldea bera izan da askotan ahozkotasunaren ekarriaren emoile edo bitarteko. Baina horreez gainera, hainbat laguntzaile, irakasle eta barriemoile izan dira inguruan, han-hor-hemengo berba, adiera eta esaldiak batu eta idazkaritzaren esku ipini dituenak.